

**Irakasleon lan
baldintzak
hobetzeko,
nahitaezkoak dira
murrizketarik
gabeko aurrekontuak**



LAN BALDINTZAK HOBETU, HEZKUNTZARAKO AURREKONTU DUINAK

Legealdia hasi aurretik, Gobernua sostengatzen duten alderdiek egindako akordioan hezkuntzan pairatu ziren murrizketak bertan bera uzteko konpromisoa hartu zuten. Legealdiaren 2 urte eta erdi igaro ondoren, gobernua bere akordio programatikoan hartu zituen hezkuntzako konpromisoetatik oso gutxi bete dira (eraikin berriak egiteko partida igo zen iaz eta haur eta lehen hezkuntzaren ratioak leheneratu)

Hasieratik aldarrikatu dugu asmo sindikalak jasoko zituen Hezkuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko Itun baten beharra, murrizketak lehengoratzeko epeak zehaztuko zituen. Berreskuratu nahi genituen galdutako ehunka enplegu, eta amaitu nahi genuen enpleguaren prekarizazioarekin.

Azkenean, joan den martxoan negoziazioaren atariko fasea hasi zen. Sindikatuok azkar bidali genituen gure proposamenak, eta sektore-mahaiko bileretan, maiatzaren 31ra artekoetan, xehetasun guztiak eman genituen. Maiatzaren 31ko azken bilera Hezkuntzako zuzendari nagusiak esan zigun bere proposamena pare bat astetan bidaliko zigula, ondoren negoziazio-faseari ekiteko, eta akordioak aurrekontu-aurreproiektuan islatzeko.


Bost hilabete pasa ondoren inolako proposamenik gabe, mobilizazioetara jo genuen urriaren 20an, elkarretaratzeak egin genituen ikastetxeetan eta kalean, prozesuarekin gure desadostasunak plazaratzeko eta lehenbailehen negoziazioa hasteko. Urriaren 23an elkartu ginen kontseilariarekin eta azaroaren 3an igorri ziguten proposamena. Hitz onak eta dirurik ez. Hezkuntza Departamentuaren proposamenean jasotzen dira sindikatuen aldarrikapen gehienak, baina ez dago inolako konpromisorik neurriak martxan progresiboki jartzeko. Aurrekontuak dira giltza. Aurrekontuetan diru nahikorik bideratzen ez bada Hezkuntzara, murrizketek jarraituko dute.

Azken hilabete hauetan, Hezkuntzan inbertitzea lehentasuna dela alderdi guztiek aldarrikatu dute, murrizketak amaitzeko garaia dela. Baina zoritxarrez, hori ez da islatu 2018rako aurrekontuaren proiektuan. Hor % 4ko igoera orokorra aurreikusten da, baina Hezkuntza alorrean % 1,3a besterik ez.

Hezkuntzan behar den inbertsioa

Inbertsio Publikoa hezkuntzan (BPGren %tan)

2015 28-EB



Europak hezkuntzara bideratzen duen batez besteko inbertsioa BPGren % 4,9 da eta UNESCOk aholkatzen duen gutxiengoa % 6. Koadroan ikusten dugun bezala, Europako herrialdeekin alderatuz, Nafarroa da bere BPGtik hezkuntzan gutxien inbertitzen duenetako bat, BPGren % 3,2.

Hezkuntzan inbertsio urriaren arazo hau kronikoa da, hurrengo koadroan ikusten den bezala:

Urtea	BPG*	Aurrekontua	Hezkuntzaren aurrekontua	Aurrekontuaren %	BPGren%
2010	18.251	4.409	680*	%15,4	%3,7*
2012*	17.573	3.837	601	%15,6	%3,4
2013	17.481	aurrekoen luzapena	563	aurrekoen luzapena	%3,1
2016	19.019	4.005	601	%15	%3,2
2017		4061	648	%15,9	

Iturriak: datos macro, Leyes de Presupuestos del Gobierno de Navarra.

** gastu erreala baxuagoa izan zen 2013-2014 eta 2015ko aurrekontuak ez ziren onartu eta luzatu egin ziren.*

(*2013tik 2015era aurrekontuak luzatu ziren eta urte hauetan inbertsioa jaitsi zen BPGren % 3,1ra.)

Gainera, Estatu Espainiarreko lurraldeek bere aurrekontuetatik hezkuntzara batez beste % 0a bideratzen dute, berriz, Nafarroan ez da % 16ra iritsi azken urteetan.

Zenbakietan ikusten dugu azken urteetako murrizketen eragina:

- 2017an hezkuntzan inbertitu ziren 32 milioi gutxiago 2010ean baino.
- Urte hauetan KPIa % 9,3 igo da.
- Ikasle kopurua % 7,3 igo da.
- Beraz, 2010etik 2017ra hezkuntzaren inbertsioa % 21,3 galdu da.

2010eko mailara iristeko 786 milioiko aurrekontua beharko genuke.

Hezkuntzan BPGaren % 6a inbertituko balitz, Unescok aholkatzen duen bezala, 1.100 milioi baino gehiago beharko liriteke eta Europako batez bestera iristeko 930 baino gehiago.

Datu lotsagarri hauek mozorrotzeko, maiz erabiltzen da ikasle bakoitzeko inbertitzen den diru kopurua. Euroa herrialde askotan erabili arren Europan, honek ez du eros ahalmen berbera bermatzen leku guztietan. Beraz, elementu horrek ez du balio errealitateak alderatzeko.

PISAn emaitza onak ateratzea lasaigarria izan da Nafarroako Gobernuztat eta balio izan du azpifinantzaketa justifikatzeko. Baina gogoratu behar dugu PISA, ELGAK lan merkatuari begira antolatutako ebaluazio sistema dela, ez herritar kritikoak heziko dituen hezkuntza sistema bat ebaluatzeko modua.

2010etik irakasleek eutsi diote sistemari, bolondres lana ugari eskainiz eta beraien aldarrikapenen aurrean beraien lana goraipatu izan da, baina zama geroz eta gehiago handituz joan da. Egoera honekin amaitu behar da.

Ez dago dirurik hezkuntzan inbertitzeko?

Gobernuak baditu tresnak: politika fiskala aldatzea, zor ez-zilegia (parlamentuko lan batzorde batek 171 milioi dela egiaztatu du) ez ordaintzea edota bere autogobernua erabiltzea eta gastu mugari men ez egitea, diru hori zerbitzu publikoetan erabiliz.

Fiskalitateari dagokionez, egungo zerga sistemak diru gutxi biltzen du Nafarroan, Europako batez besteko mailarekin alderatuta BPGaren % 8,9 gutxiago, alegia 1675 miloi euro gutxiago. Horretaz gain, modu injustu eta antisozialean biltzen du, diru gehiago bilduaz zeharkako zergekin zerga zuzenekin baino. Eta zuzeneko zergetan % 73,8 jasotzen da lan errentetatik. Gainerakoa, sozietateen gaineko zergen bidez, enpresa eta kapitalen errenten bidez... jasotzen delarik. Eta urtez urte desberdintasun hau handiagotzen doa. Horrez gain, iruzur fiskalak oso handia izaten jarraitzen du.

Elementu hauek guztiak aldatuko balira, diru sarrera nahiko izango litzateke Nafarroako errealitatean oinarritutako politika sozialak egiteko eta zerbitzu publikoak, gehien bat hezkuntza, indartzeko.

Mobilizazioaren beharra

Aurrekontuen proiektuaren eztabaidak abenduaren amaiera arte iraungo du. Oraindik garaiz gaude irakaskuntza publikoan inbertsioa asko handitzeko. Urtarriletik aurrera ordezkapenetarako irizpideak arinduz gutxienez eta 2018-19 ikasturtetik aurrera irakastorduak eta ratioak jaitsiz, adinagatik murrizketak ezarriz, aniztasun trataerako neurriak areagotuz, lanpostuak egonkortzeko plana ezarriz, eta abar luze bat.

Hau dena lortzeko, ezinbestekoa da mobilizazioa, irakasleena, ikasleena, familiaena. Talde parlamentarioek ikus dezaten Hezkuntzak lehentasuna duela eta 2018ko aurrekontuetan murrizketak amaitzeko dirua bidera dezaten.